

gazteekin
bat!

HEZIKETA ZENTROETAN PARTE-HARTZE KOMUNITARIOKO METODOLOGIA SUSTATZEKO PROTOTIPOA

Egilea: Sorginlore Gizarte Elkartea

ekin
bat!

Gazteok komunitateak josten
Jóvenes tejiendo comunidades

1. Proiektuaren kokapena	3
2. Sarrera	5
a. Helburua	6
b. Parte hartzaileak	7
c. Faseak	8
d. Kokapen kontzeptuala	9
3. Irakaslegoarentzat gakoak ikuspegi eta metodologia aldetik	11
4. Egitura	13
o Prozesuan bidelaguntza	15
o 0. fasea. Prozesuaren kokapena	16
o 1. fasea. Diagnosi Komunitarioaren diseinua eta gauzatzea	20
o 2. fasea. Ekimen Komunitarioaren plangintza	25
o 3. fasea. Ekimen Komunitarioa aurrera eramatea	29
o 4. fasea. Itxiera eta irekiera festa/ospakizuna	32
5. Ebaluazioa	35
a. Ebaluazio motak:	35
b. Ebaluazio teknikak eta iturriak.	35
6. Jasangarritasuna	37
7. Kronogramaren proposamena	38
8. Bibliografia	39

1.

PROIEKTUAREN KOKAPENA

ekinbat! [Ikaslan Gipuzkoak](#), [Ikertze Kultur Elkarteak](#), [Zabalduz Kooperatibako Batzen proiektuak](#) eta [Sorginlore Gizarte Elkarteak](#) aliantzan bultzatutako proiektua da. EHUK, Zehar-Errefuxiatuek eta Lanbide Heziketa (Fraisoro Eskola LHII, Oñati BHI, Don Bosco LHII eta Blas de Lezo LHII) zein Helduentzako Ikastetxeek (Donostia HHI - Bidebieta) kolaboratzen dute.

Proposamen multieragile honen helburua Gipuzkoan bizi diren eta **desabantaila egoeran dauden gazteen enplegarritasuna eta inklusioa erraztea da**. Horretarako, gizartean, komunitatean eta kulturen parte hartzea sustatzen duten testuinguruak sortzen dira. Horrez gain, eragile estrategikoei bideratuta dauden emantzipaziorako funtsezko ezagutzak zabaltzen dituzten tresnak ere garatzen dira.

Parte-hartzea funtsezko elementu bat da; horrekin lotuta, gazteekin oinarritzko gaitasun soziolaboralak eta errotze soziokulturala garatzen dira, baita ekosistemarekiko elkarelikatzea ere. Era berean, eragileen parte-hartzeak enplegu-aukerak sustatzea ahalbidetuko du.

Ikuspegi prebentiboa, sistemikoa eta generokoa duen proposamena da honakoa, eta euskararen sustapena eta jasagarritasuna barne hartzen ditu.

PARTE-HARTZAILEAK

- Hasierako Lanbide Heziketan dauden gazteak eta irakasleak.
- Lanbide Heziketa zentroen komunitateak (eragile komunitarioak / herrikoak).
- Emakume gazteak: Lanbide Heziketako ziklo maskulinizatuetan, helduentzako ikastetxeetan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes-emantzipazio sisteman daudenak.
- Eragile estrategikoak: administrazio publikoa, enpresa pribatuak eta eragile antolatuak.

PROIEKTU-SORTA

gazteekin bat!

Pedagogia feministen bitartez, Gipuzkoako Hasierako Lanbide Heziketa publikoko zentroetako gazteen parte-hartze soziopolitikoaren sustatzeaz gain, sinergiak sortzen dira tokiko ekosistemen eta zentroen artean. Irakasleak eta ikasleak parte-hartze komunitarioan eta gaitasun soziokulturaletan diagnostiko komunitario bat egin dezaten prestatzen dira. Azkenik, ikasleek eta komunitateko eragileek, irakasleen laguntzarekin, ekintza bateratua antolatzen dute, identifikatutako lehentasun bati erantzuteko. Esperientziak sozializatzen dira, metodologia prototipatzen da eta beste zentroetara ere hedatzen da.

emakumeekin bat!


Emakume gazteek ahalduzko eta laneratzeko tresnak garatzen dituzte, teknika artistikoetan oinarritutako introspektzio-sorkuntza prozesu baten bitartez. Emakume taldeekin bultzatzen den iniziatiba da, hala nola: Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes-emantzipazio sistemari lotutakoak, Helduentzako Hezkuntza Ikastetxeetako ikasleak, Erdi Mailako Lanbide Heziketako ziklo maskulinizatutako emakumeak, eta abar. Hainbat lan-saioren ondoren, prozesua ikustarazteko ekintza bat egiten da. Proiektua berdintasun teknikariekin eta eragile feministekin sozializatzen da.

eragileekin bat!

Desabantaila egoeran dauden gazteak emantzipatzeko ezagutzak sozializatzen dira. Horretarako, enpleguaren bidez helduarora igarotzeko baliabideen gida eleaniztuna egiten da. Lanbide Heziketa zentroei, enpresei, administrazio publikoari, gizarte erakundeei eta gazteekinbat! zein emakumeekinbat!-eko parte-hartzaileei gidaren sorreran parte hartzeko aukera eta formakuntza ematen zaie.

2. SARRERA

Aurreko atalean aurkezten den EkinBat! proiektuaren baitan kokatzen da prototipo hau, zehazki GazteEkin Bat! en baitan, alegia, GazteEkin Bat! prozesuan erabilitako metodologian oinarrituz, eta esku hartzeko esperientzia zein ikasketez osatuta, heziketa zentroetan partaidetza komunitarioko metodologia sustatzeko prototipoa hau osatu da.



a. HELBURUA

Partaidetza komunitarioko eredu honen helburua Hasierako Lanbide Heziketako (hemendik aurrera HLH) ikasleen ahalduntzea indartzea eta bizitzako erronkei erantzuteko gaitasuna bultzatzea da. Horretarako, irakasleen gaitasunak indartuko dira, prozesu honetan ikasleen bidelagun eta motibazio-pizgune izan daitezten. Xede hori lortzeko bidean, ezinbestean honako gaitasun landu zein aukerak zabalduko dira:

Lehenengoa, gazteek subjektu gisa duten kontzientzia zein kulturaren, elkarbizitzan eta lan-esparruan parte hartzeko dituzten trebetasunak modu praktikoan sustatuko dira. Zeharkako gaitasunak lantzeaz gain, prozesuaren diseinu praktikoak gazteek esperientzia biltzea eragingo du, hau da, euren burua testuinguru ezberdinetan irudikatzea eta erronka sozioekonomiko-ekologikoekiko interesa areagotzea.

Bigarrenkoa, beren errotze soziokulturala eta tokiko ekosistemaren sinergiak indartuko dira; izan ere, lekuko eragileekin harremantzeak eta elkar-ezagutzeak erraztasunak eta aukerak areagotuko dizkie etorkizunean enplegua aurkitzeko.

Horiez gain, erabilgarria izango da autoezagutza eta elkar-ezagutzarako, bizikidetza eta ongizate-sentipena areagotzeko, eta abarren lanketarako. Alegia, prozesu komunitario parte hartzaile honek HLHko oinarritzko curriculumean biltzen diren zeharkako gaitasunetan eta 4.0 balioetan lur hartzen du, beraz, prozesu honen baitan honako ildoak lantzen dira.

1. **Gaitasun sozioemozionalak:** norberaren zein besteen emozioak ulertu eta testuingurura zein egoera pertsonaletara egokituz kudeatzeko edo pertsonekin erlazionatzeko gaitasunak landuko dira. Izan ere, bakoitzaren esperientzietatik elikatuko diren jarduera ezberdinen bitartez, batetik, zailtasunak identifikatzeko aukera izango dute eta bestetik, horiek kudeatzeko estrategia desberdinak bildu zein praktikan jartzekoa.
2. **Komunikazio-arloko gaitasunak:** entzute aktiboa, komunikazio ez-berbala, eraginkorra eta feminista landuko da; prozesu osoan komunikazioa oinarritzko lan-tresna izango denez, presentzia handia hartuko du.
3. **Lankidetzazko gaitasunak:** norberaren gaitasunetatik abiatuz (ezagutzak, trebetasunak, jarrerak, etab.) beste pertsona batzuekin harremantzeko baliagarriak diren trebetasunak landuko dira: erabakiak kritikotasunez hartzea, lankidetzan aritzea, erantzunkizun, eskubide zein ardurak hartzea eta banatzea, helburuen ezarpen egokia, estrategia eraginkorren formulazioa, etab.

4. **Sormenezkoak:** aukera eta ideia berrien aurrean jarrera irekia eta moldagarria izatea da asmoa, horretarako, ideia egokiak hautemateko eta garatzeko gaitasuna landuko da. Prozesu honen izaera dinamiko eta praktikoak ustekabetara egokitzeko malgutasun kognitibo eta jokabidezkoa trebatzeko aukera emango du.

b. PARTE HARTZAILEAK

Prozesuko parte-hartzaileei dagokienez, honek hiru helmuga/foku ditu. Lehenengoa gazteria, neskak, mutilak eta pertsona ez bitarrak, proiektu honetan HLHko ikasleak; bigarrena hezkuntza taldeak, kasu honetan HLHko langileak; eta azkenik komunitatea¹, bai tokiko eragileak, auzokideak eta auzoko/herriko talde edo eragileak, zein ikastetxeko gainontzeko kideak edo eskola komunitatea. Edonola ere, hiru parte-hartzaile multzoen artean osatuko da parte-hartze taldea, eta parte-hartzaile multzo bakoitzak dagokion mailako eskubide eta ardurak izango ditu proiektu-ekosistemaren parte den heinean.


Horrez gain, gida hau partaidetza komunitarioko metodologiak gazteentzat inpaktu positiboa izan dezakeela sinesten duten hezitzaileentzat erabilgarria izatea espero da, izan ere, lan kolektiboa sustatzeko zein errealitatea eraldatzeko abiapuntu posibletzat edo eredugarritzat gerta baitaiteke, horrez gain, honen inguruan kuxkuxeatu, prozesua diseinatu eta martxan jartzeko asmoa duen ororentzat ere baliagarria izan liteke, .

¹ Baliteke kasuren bateko espezifikotasunengatik, proiektua hezkuntza-testuingurura mugatzea, hala izanez gero, testuingurua dimentsio anitzten topalekutzat ulertu behar da (ekonomikoa, politikoa, kulturala, historikoa, soziala..) eta bertako gizabanakoak harremanak sortzen (edo ez) dituzten eragiletzat, testuingurua moldatzeko gaitasuna dutenentzat.

c. FASEAK

Inplementazioari dagokionez, prozesu honi lehenengoz heltzean ordena jarraitzea gomendatzen da.

- A. Irakasleen bidelaguntza.
- B. 0. fasea: prozesuaren kokapena
- C. 1. fasea: Diagnosi Komunitarioaren diseinua eta gauzatzea.
- D. 2. fasea: Ekimen Komunitarioaren plangintza.
- E. 3. fasea: Ekimen Komunitarioa gauzatzea.
- F. 4. fasea: itxiera eta irekiera ospakizuna.



Partaidetza komunitarioaren ezaugarrietako bat bidea pausuz pausu osatzen dela da eta beraz, ezinezkoa da hartuko den bidea aurreikustea. Prozesu honen nondik norakoak azaltzeko ibaiaren adibidea hartuko da. Ikus daitekeen bezala, ibaiak hasiera edo jaiotza puntu bat du, baina ibilbide zein bukaerak anitzak dira eta hasieratik ezin dira aurreikusi, ez behintzat ibaiak gurutzatuko duen testuingurua ezagutu arte; izan ere, testuinguruak eta bertan aurkitzen diren elementuek (zuhaitz, harri, laku...) eragingo dute ibaiaren ibilbidearen forman. Demagun ibaia kokatzen den mendia gure komunitatea dela eta bertako elementuak, komunitatea osatzen duten pertsonak,

eragileak, kolektiboak eta abar. Ibaiari elementuek bezala, prozesuari komunitateko kideek emango diete forma (euren iritzia, jarrera, parte hartze moduek...). Hasiera, 0.fasea, ibaieraren sorreran kokatuko da eta 1. eta 2. faseetan ibilbidea egiten joango da, ibaia bailitzan beherantz, diagnostiko komunitarioaren bidez prozesu parte hartzaileari forma ematen. Hala ikusiko da ekimen komunitarioa nolakoa izango den (3.fasea), itsasora heldu eta beste hainbat ibairekin (proiektu, eragile, ekimenekin...) bildu eta jarraipena izango duen, lakuren batera iritsi baina bertan geldi geratuko den, ibai edo ekimen txiki askotan banatuko den... Dena dela, hurrengo puntuetan etapa hauen azalpenei sakonago helduko zaie eta lotura egingo da proiektuaren helburuaren eta etapa bakoitzaren artean.

d. KOKAPEN KONTZEPTUALA

Zergatik Partaidetza Komunitarioa? Partaidetzaren alderditik lanketari heldzeak desabantailan dauden gazteen lidergotik eraikitzea esan nahi du, gazte horiek ahal dutela uste izatea adierazten du, tokia ematea, euren bidelagun izatea eta prozesu pertsonal zein taldekoak erraztea.

Horrez gain, parte-hartze komunitarioa prozesu sozial gisa definitzen da eta espazio bat ematen zaio premia, arazo edo interes-guneren bat partekatzen duten berariazko biztanle-taldeen elkarrizketari. Izan ere, hausnarketa kritikoaren, pentsamendu sortzailearen, ikaskuntza kolektiboaren eta autokudeaketarako gaitasunaren bitartez, beren garapenerako oztopo eta aukerez jabetzean dira eta erabakiak hartzen dituzte, oztopo horiek gainditu eta eraldatzeko mekanismoak ezartzeko.

Gainera, sortzen den ezagutza kolektiboa eta esanguratsua da, izan ere, edukia garapenean parte-hartzen duten pertsonen partekatutako bizipenetan eta ezagutzetan oinarritzen baita.

Azkenik, parte-hartze komunitarioak izaera organikoa eta bizia du. Alde batetik, prozesua den heinean funtsetik dinamikoa eta epe luzekoa delako. Bestetik, komunitatea errealitate performatiboa denez (praktikatuz gero existitzen da), egitura bat baino gehiago egiteko modu bat ere bada. Bertan hainbat pertsona eta eragile lotzen dira elkarrekikotasun-printzipioaren eta identitate kolektibo motaren baten bitartez. Horregatik, funtsezkoa da prozesuaren parte izatea, etengabe eraikitzen den ekosistema komun horren parte sentitzea. Hori dela eta, uneoro aipatuko den bezala, ez dago funtzionatzeko formula magikorik, ezta bakarra ere.

Aipatutakoa honela laburbildu daiteke: 1) komunitateak aldaketarako joera du eta gazteek eraldaketa horretan eragiteko duten gaitasuna sustatu nahi da eta 2) egiturazko eta kultur mailako inpaktua bilatu nahi bada, prozesua bera helburutzat hartu behar da. Bi horiek dira izatez proiektua gidatzen duten ideiak, baina funtziona dezan zenbait ikuspunturen presentzia ezinbesteko da².

- **Interseksionalitatea:** gizarte-kategoria ezberdinak nola elkargurutzatzen diren eta elkargune horiek aparteko zapalketa eta pribilegio bizipenak nola sortzen dituzten aztertze, ulertze eta erantzuteko tresna bat da. Kategoriatan aurkitzen dira pertsona bakoitzaren identitatea eta egoerak, testuinguruko egiturazko elementuak eta sistemaren zapalketa ardatzak. Prozesua partaidetzan oinarriturik eta bera sustatzeko asmoz sortu den heinean, ezinbestekoa da partaide ororen (ikasle, irakasle, auzotar...) kasuan ezberdintasun ardatzek nola eta nondik zeharkatzen dituen kontuan izatea partaidetza espazio seguru bat sortzeko eta desberdinkeriak ez erreproduzitzeko.
- **Generoa:** generoa pertsonen sexuaren arabera ematen zaizkien ezaugarrien, lekuen eta rolen eraikuntza sozial, kultural eta historikoa da, patriarkatutik eta androzentrismotik abiatuta. Genero eraikuntzak desberdintasuna daraman neurrian, edozein ekimenen eragina diseinatu, abian jarri eta neurtzeko orduan, desberdintasuna ezabatu eta sistema eraldatu nahi bada, kontuan hartu behar da pertsonen egoera, kokapena, ahotsa zein premiak. Illdo beretik, HLHko ikasgeletan ematen diren errealitate bereizietan arreta jarriko da; demagun, ziklo maskulinizatu eta feminizituetan aurki daitezkeen dinamiketan, ikasle-talde mistoekin jarduteko orduan kontuan izan behar diren alderdietan, irakasle gisa erreproduzitzen diren jardunetan... Egoera horiek lanketa feministatik kudeatuko dira, harreman osasuntsuen sarea eta bizidetza bilatuko dituen prozesu parte hartzaile komunitario honen baitan.
- **Kulturartekotasuna:** gizartean jada badagoen kultura-aniztasunetik abiatuta, kultura sintesi berri bat garatzeko asmo politikoa du; lurraldeko eta gizarte eta ekonomia espazio berari lotutako gu bat, non denek sentitu ahal izango duten partaide direla, diskriminazio gabe eta interdependentziaz jakitun.

² Ikuspegi hauek ikasgelako saio praktikoetan zein irakasleen bidelaguntza saioetan uneoro zeharka aplikatuta egongo dira.

3.

IRAKASLEGOARENTZAT GAKOAK IKUSPEGI ETA METODOLOGIA ALDETIK

Hemen partekatzen den gakoan zerrenda ez da betetzeko ezinbestekoa. Pertsona bakoitzak (edo talde bakoitzak) bere testuingurutik eta bere errealitatetik irakurri zein ulertuko ditu gako hauek; bere energia eta gaitasunekin batuko ditu, bere denbora eta baliabideekin, aliantzekin. Hortik, une bakoitzean ikusi ahal izango du zein diren gako garrantzitsuenak, zein diren jada aplikatu ditzakeenak eta zein lehentasunezkoak parte-hartze eta eraldaketa-sozial maila sakonagoetarantz ekiteko.

Inpaktua	• Parte-hartze komunitarioaren prozesuak berak bizikidetza eta ongizate-sentipena hobetzen lagun dezake, lortzen den emaitza hutsetik haratago. • Prozesua autoezagutzarako eta elkar-ezagutzarako bidea da. • Prozesua unean une eta elkarrekin sortzeak ikasleekiko hurbiltasuna areagotu dezake. • Komunitatearentzat garrantzitsua den horren inguruan jardungo da. • Prozesuaren bidea guztiz aurreikusi ezinak, egoerarekiko kontrol-maila jaitsi eta irakaslegoari kokapen ezberdin batetik jardutearen bizipena emango dio.
Jarrera Ikuspuntua Ezaugarriak	• Prozesua da ikasketa: mugak zeintzuk izan al diren, nola aurre egin, ezetzak nola jaso, talde lana benetan zer da.... • Ikasleek euren agentzia kontuan hartzea eskertzen dute eta jarrera proaktiboa izatera bultzatzen ditu. • Prozesuan zehar partaidetza esanguratsua, ekitatiboa, dialogikoa eta proaktiboa sustatzean arreta jarri eta baloratu. • Esperientziei balioa eman, ezagutza eta ibilbide anitzetatik erantzun kolektiboak sortu. • Pertsonarteko zaintza oinarritzko elementua da. Hori hala, partaidetza sustatu eta isiltasunak errespetatu, biribilean batu, maila berean jarri, komunikazio ez berbala zaindu, pertsona bakoitza izenez edo berak erabaki duen bezala agurtu, nola dauden galdetu eta abar. Ikasgelan

	ematen diren dinamika eta botere harremanetan arreta jarri eta horren arabera eragin. • Parte hartzeko modu ezberdinak daude, ezagutarazi eta bakoitzari erosoan egiten zaion moduan jardutea baloratu: ez dago dena elkarrekin egin beharrik, ez da behar guztiek hitz egitea... • Sormenari espazioa eman eta bultzatu, gorpuztu ideiak eta hausnarketak. • Moldagarritasuna ezinbesteko baldintza da, komunitatearen testuinguru eta beharretara egokitu. • Prozesuan parte-hartzen duen ikasle-taldeko kideen arteko kohesioak eragina du, baita taldea mantetzeak eta ez apurka desegiteak. • Plazerera eta gozamenera bideratu: alderdi guztiek interesgarritzat jotzen duten eta sentitutako-premia edo desira bati erantzuten dion praktika/ekintza batean lurreratu behar da ideia. • Proiektuak hartuko duen dimentsioa errealista izan behar da, igurikapenak neurtu behar dira; ilusioek/desilusioek taldearen motibazioan zuzeneko eragina baitute eta ezinbesteko erregaia da proiektua behar bezala aurrera ateratzeko.
Erabilgarritasuna	• Prozesua curriculumeko konpetentziekin osatu daiteke eta programako erronkekin elkarlotu. Lanketa hau ikaskuntza-eta irakaskuntza- metodologia gisa ulertzeak eta ekimena egunerokotasunarekin lotzeak abantailak ekar ditzake alor akademikoan eta laneratzeko orduan. • Proiektu bateratua izan liteke: ziklo ezberdinen zein irakasgai ezberdinen artean. • Zeharkako edukiei eta gaiei heltzeko aukera eskaintzen du. • Auzoko elkarteak ezagutzea erabilgarria eta lagungarria gerta liteke aurreragorako: praktikak, tailerrak, irteerak...

4. EGITURA³

○ Prozesuan bidelaguntza

Prozesuan bidelaguntza jasoko duen taldea irakaslez⁴ osatua izango da, hala ere, lanketa elkarlotuta egongo da gainontzeko faseetan landuko denarekin, ikasleen saioetan irakasleek ere ikasteko eta eduki, esperientzia, estrategiak... barneratzeko aukera izango baitute. Saio hauek prozesu parte hartzaileari testuingurua emango dietenak dira hein batean; izan ere, bidelaguntzarako espazio honetan barneratutakoa ondoren ikasleekin gauzatuko diren saioetan praktikan jarriko da. Hori dela eta, bidelaguntza saioak prozesu osoan zehar mantenduko dira, ikasleen saioekiko parelelo, unean uneko beharren arabera moldatuz, bai denbora zein gaitegi aldetik.

Talde-izaerari dagokionez, prozesua modu ezberdinetan eraman liteke aurrera, hori horrela, irakasle-taldearen osaera eta baldintzen arabera eskola bakoitzean baloratuko da zein den antolamendurik egokiena. Horren arabera hartuko dute forma saioek: zentroko irakasleek lanketa autokudeatua egin lezakete, prozesu berean aurkitzen diren beste zentroetakoekin bilduta, kanpo-bidelaguntzaren bitartez, etab. Behin taldearen antolamendu estrukturala zehaztuta eta eskola testuinguru bakoitzaren mugak, arauak eta baliabideak argituta, bidelaguntza saioei ekingo zaie.

Helburuei helduz, irakasleekin gauzatuko diren saioek helburu ezberdinak dituzte. Batetik, helburu operatiboa, prozesu parte hartzaileek koordinazio jarraia eskatzen duten heinean, espazio hau horretarako tarte izango da: bertan ikasleekin gauzatuko den alderdi praktikorako ezagutzak bildu eta eraikiko dira, emandako pausuak berbegiratu eta hausnartu, bidelaguntza jaso eta ibilbidea elkarrekin eraikiko da. Bestetik, prozesuarekiko sentsibilitatea eta interesa sustatzeko asmoa du, izan ere, modu parte hartzailean jarduteko ezinbestekoa da borondatetik abiatzea eta gaitasun zein jarrera batzuk lantzeko eta desikasteko prest egotea: irakaslearen rolaren, ikasleekiko erreferentzialtasunaren eta helduzentrismoaren inguruan hausnartzea, besteak beste. Gainera, jarrera proaktiboarekin abiatzea irakaslegoan ez ezik, ikasleengan ere sustatu behar den zerbait da. Hori dela eta, irakasleekiko saio hauek hiru norabidetan eragingo dute; batetik, planteamendu operatiboa landuko da, bestetik,

³ 7.atalean aurkitzen den kronogramaren proposamena lagungarri gerta liteke ulermenerako.

⁴ Testu honetan irakasle hitzak eskola-testuinguruan gazteen hezkuntzaz arduratzen diren profesional orori egiten dio erreferentzia.

irakasleen hausnarketa eta kritikotasuna zuzenki landuko dute eta azkenik, irakasleek ikasleengan jarrera horiek sustatzeko modua aurkitzeko baliatuko dira.

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

-Prozesua aurrera eramateko modu ezberdinak daude: kanpo bidelangutzarekin, eskola arteko laguntasunarekin, norbere eskolaren baitan, eragile ezberdinekin, etab. Kasuan kasu egiten den balorazioaren arabera kudeatu eta moldatuko da prozesua.

-Prozesua barneratzeko eta jasangarria eginarazteko erreferentziazko pertsona berdinak mantentzea garrantzitsua gertatzen da.

-Prozesuan parte hartzen duten irakasleen arteko (orientatzaile, tutore, tailerretako irakasle...) zubi lanak izugarrizko garrantzia du.

-Jada martxan dauden estrategia eraginkorrak identifikatu eta partekatzeak tokia da.

- Irakasleen topagune bihurtu daiteke, babes-gune (eskola ezberdinetako irakasleak bil daitezke, ziklo ezberdinetakoak, lan-esparru ezberdinetakoak...).

-Irakasleen rola eta erreferentzialtasunaren inguruan hitz egingo da: helduzentrismoa, ikasleekiko jarrera maskulinoak, kontrol beharra... ikasgelako giroa lantzeko asmoz.

Prozesuan bidelaguntza fitxa

Iraupena: 2 - 3 orduko 5 saio eta koordinazio dei edo bilerak

Partaideak: irakasleak

Xedea: 1) prozesuarekiko interesa eta sentsibiltatea areagotzea
2) eraginkortasuna

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
Prozesuan bidelaguntza	10 - 15 h						

Zeharkako lanketa	Hezitzaileen rola eta erreferentzialtasuna
	Bitartekaritza eta komunikazioa ez bortitza
	Partaidetzaren gakoak eta gatazken kudeaketa
	Komunitatea
	Interseksionalitatea eta aniztasuna
	Genero ikuspegia
	Gune/une seguruak
	Talde lana (ikasleen zein irakasleen artean)
Lanketa operatiboak	Diagnosi komunitarioa
	Ekimen komunitarioa
	Festa
	Koordinazio bilera anitzak





0. fasea. Prozesuaren kokapena

Prozesuaren kokapena deritzon fase honekin emango zaio hasiera ikasle-irakasle⁵ taldearen prozesuari. Aurretik adierazi bezala, irakasleentzat bidelaguntza saioetan norbereganatutakoa praktikan jartzeko espazioa izango da. Arreta puntu ezberdin batetik, baina xede berdinak gidatzen du; prozesuarekiko sentsibiltatea eta interesa sustatzea, kasu honetan ikasleekiko.

Helburua lortzeko bidean, egokien baloratzen den metodologiaren bitartez, oinarrizko kontzeptuen lanketa egitea proposatzen da (komunitatea, partaidetza, intersektionalitatea, erabaki-hartzea, etab.) eta kontzeptu horiei talde-mailako ulermena ematea; alegia, eduki horiek talde bakoitzaren errealitatera hurbiltzen saiatzea, taldeak esanguratsuak suertatzen zaizkien gaiak mahaigaineratzeko aukera izatea eta horien inguruan hitz egitekoa.

Horrez gain, ikasleak ere aurrera eramango duten prozesuan kokatuta egotea ezinbestekoa da, horretarako izango da tarte hau; beharrezkoa ikusten baita prozesuaren gaineko ulermenerako.

⁵ irakasle-taldeko irakasle berdinek parte hartuko dute talde honetan (eurak eta ikasleak)

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

- Inguratzen gaituzten eta bidelagun ditugun **kontzeptuei izenak jartzea** eta euren inguruan hitz egitea beharrezkoa da prozesuaren ulermenerako.

-Garrantzitsua da uneoro **prozesuaren ze puntutan kokatzen garen kontziente** izatea.

- **Prozesua sinbolikoki irudikatzeak** laguntzen du.

- Prozesua unean une sortzen eta forma ematen joateak, **ikasle zein irakasleak maila berdinean kokatzea ahalbideratu** lezake, harremantzeko posizio anitzak eskainiz.

0. Fasea: Prozesuaren kokapena fitxa

Iraupena: 3 - 4 orduko saio bat

Partaideak: Ikasleak eta irakasleak

Xedea: Prozesuarekiko sentsibiltatea eta interesa sustatu; prozesuaren oinarriak ulertu euren bizipenetatik

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
0. fasea Formazioa, hausnarketa eta igurikapenen lanketa	3 - 4h						

Denbora	Dinamika eta azalpena
5'	Sarrera - Aurkezpena.
10'	Proiektua azaldu. ➤ Helburua ➤ Faseak edo ibilbidea ➤ Prozesua denboran nola kokatuko den. *Sinbologia erabiltzea ulertzeko lagungarria gerta liteke (adibidez, ibaia).
30'	Komunitatearen inguruko hausnarketa ➤ Komunitate ezaugarriak azaldu adibideak emanaz. ○ Identitate kolektiboa partekatzen duen eta elkarrekikotasun printzipioari jarraitzen dion pertsona taldea. ○ Ondorengo beharrak asetzea baimentzen du: kide/parte izatearen sentimendua, onarpena eta aitortza, babesa eta segurtasuna... ○ Ez da jarraia izan beharrik, une zehatz bat izan liteke. ○ Ez da zertan leku fisiko batean kokatu, birtuala ere izan liteke. ➤ Jarduera ○ Komunitatearen adibideak eman ○ Ikasle bakoitzari papeltxo bat eman eta hurrengoa galdetu: noiz/non sentitzen zara komunitatean? Bakoitzak hiru ideia bildu eta kideei aurkeztu.
15'	Gazte Antolamendua Adibideak eman euskarri bisualen bitartez ➤ Basket Kalea ➤ Marabiyak sound ➤ Amillubi ➤ Kamanga Influencers Club

60'	Aniztasuna lantzeko dinamika ➤ Jarduera ○ Aniztasunaren aldagaien borobilak osatu: borobil bakoitzean ezberdintasun ardatz bat azalduko da (maila ekonomikoa, erlijioa, azal kolorea, bizikidetzaren unitatea, generoa, orientazio sexuala, adina...) ○ Taldeetan banatu eta talde bakoitzari aniztasunaren borobil bat edo gehiago eman ○ Talde bakoitzak tokatu zaion ardatzaren baitako aukerak zerrendatu ○ Gainontzeko kideei aurkeztu eta osatu guztien artean. ○ Irten diren adibideak aprobetxatu gogoeta bultzatzeko. ■ Desabantailak, zapalkuntza, bazterketa eta pribilegioak ■ Aukeratu dezakegu? Aukeraketa hori libre da? ■ Guztiok ez gara berdinak, identitatea nahasketatik dator,
30'	Deskantsua
60'	Komunikazioa eta parte hartzea. ➤ Jarduera. Rol playing ○ Komunikazioa eta parte hartzea lantzeko aukera ematen duten esketak prestatu. ○ Talde bakoitzari egoera bat esleitu eta pertsona bakoitzari pertsonaia bat. ○ Rol playing-az baliatu komunikazio eta parte hartzea lantzeko. ■ Zein rol ezberdin ikusi ditugu? ■ Rol inbaditzaileak egon da? Hitz egitera behartu duena, ados egotera... ■ Elkar entzun dira? Irizkiak errespetatu dira? Denen artean? ■ Nork okupatu du espazioa? ➤ Esketxak edo egoeren adibideak ○ Ikasleek udaletxeak kaleko horma batean irudi bat marrazteko baimena eskatu behar diete. ○ Eskolako jolastokia berrantolatzeke proiektua bukatu dugu, horren ospakizun bat egin nahi dugu. ○ Udalak espazio bat utziko digu, baldin eta denon artean erabakitzen badugu emango zaion erabilera.
20'	Zer ezagutzen duzu "auzoaz"? ➤ Jarduera ○ Borobilean jarri ikasleekin eta txanda bat egin ikasle bakoitzak honakoa erantzuten: ■ "Bertakoa" zara? Nola zatoz eskolara? ○ Guztion artean hausnartu: ■ Zer pertzibitzen duzu auzoaz/ikastetxeaz? Jendeaz? ■ Auzo edo ikastetxe honen beharrak zein direla uste duzu? Zerk deitzen dizu arreta?
5'	Itxiera



1. fasea. Diagnosi Komunitarioaren diseinua eta gauzatzea

Testuingurua eta beharrak aztertzeke unea da. Diagnosi komunitarioak "auzoan mugitzea"-ri egiten dio erreferentzia: bertan egoteari, eskuragarri izateari eta bertakoekin hartu-emana sortzeari. Horrek baimenduko du ekimen komunitarioaren definiziora eta helburura lehenengo hurbilpena egitea, izan ere, diagnosiaren bitartez komunitatearengan eragiten duten arazo/gogo espezifikoak identifikatuko dira. Horrez gain, komunitateko eragile ezberdinak ezagutzeko aukera emango du. Komunitatean mugitzean sareak sortuko dira gerora prozesuan parte hartuko duten horiekin.

Fase hau gauzatzeko, lehenik, jada ikasle-irakasleen artean dauden ezagutzak partekatu eta biltzeko jarduerak egingo dira; norbere interesetatik hasi eta komunitatearen inguruko ezagutzak azaltzeraino. Ondoren, auzoaren antolamendua osatzeko eta bertan biltzen diren auzotar eta eragile ezberdinak ezagutzeko eurengana hurbilduko da taldea, kalera irten eta eurek zer dioten entzungo da: interesak, ardurak, iritziak... Guzti horrekin "mapeo"a egingo da, alegia, eskuratu den informazioa biltzen duen "iruditegia" osatuko da: beharren kokapena, hobekuntza potentziala, ezaugarriak, gogoia eta abar biltzen dituen. Prozesu guztian zehar kontuan izan behar den arren, fase honetan arreta berezia jarri behar da periferiak entzun diren norbere buruari eta taldeari galdetzean, behar bada beste saiakera bat egin beharko baita.

Horrez gain, fase honen hasiera erabakiak hartzeko unea da, hori horrela, kontuan izan arduren banaketaren atzetik eman litezkeen botere harremanez. Hori ekiditeko, estrategia ezberdinak erabili (ardurak txandakatu, arduren banaketa prozesua erdi-gidatu...) eta kontziente izan.

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

-Diagnostikoa irudikatzen den bezala egitea posible da? Kasu espezifiko bakoitzaren **baldintzak, mugak eta arauak kontuan izan** da hasiko da diagnostikoa egiten; kontuan hartu behar da parte hartze taldeak dituen mugez gain, irakasleek edo heziketa zentroak berak ere arau batzuk dituela eta horien barne moldatu behar dela.

-**Esperientziatik asko ikasten da:** informazioaren bilaketa hori modu praktikoan aurrera eramateak ikasgelan ematen diren harremanak zehazteko eta ikasleen jarraipena egiteko laguntza ematen du (lidergotza, talde-dinamikak, botere-harremanak, rolak...).

-Bakoitzaren **parte-hartze modu eta nahiak errespetatu** behar dira, hala ere, irakasleen funtzioa izango da ikasleak estimulatatu eta interesaraztea.

-Garrantzitsua da gerora bidelagun nahi diren **eragileak diagnostikoaren parte egitea** (enpresak, komertzioak, elkarteak, osasun-hezkuntza zentroak...). Esaterako, belaunaldiartekotasuna bidirekzionalki onuragarria da.

-**Nork** aukeratuko du zer galdetuko den? **Nola** galdetuko den? **Zeini** galdetuko zaion? Zeharka baina presente dauden **zentro barruko zein kanpoko botere dinamikak identifikatzeko eta lantzeko** aprobetxatu.

-Posibleena da periferia eta emakume* **guztien ahotsa entzutera ez heltzea, gutxienez horren kontziente** izan behar da. Zein auzo-eragileri eman zaio lehentasuna? Zergatik?

- **Ikasleen proaktibitateari arreta eskaini**, ikusi zerk motibatzen dituen eta zerrekin gozatzen duten.

1.fasea: Diagnosi Komunitarioaren diseinua eta gauzatzea _ fitxa⁶

Iraupena: 7 - 8 ordu (egokien deritzon moduan antolatuta)⁷

Partaideak: Ikasleak eta irakasleak

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
1. fasea⁸ Diagnosi komunitarioaren diseinua eta gauzatzea	7 - 8h						

Xedea: Diagnosi komunitarioa zer den azaldu, mapeoa egin eta diagnostikoa antolatu

Denbora	Dinamika eta azalpena
15'	Sarrera eta hausnarketa orokorra ➤ Aurreko saioa laburtu eta bergogoratu. ➤ Saio honetako eginbeharra azaldu: komunitatea nola ezagutuko den adostu. ○ Zeini galdetu? ○ Zer galdetu? ○ Nola galdetu?
10'	Hiru taldetan banatu.
55' (taldeak jarduerak txandakatzen) 20'-10'-10'	Informazio bilketa zehaztu: zer galdetuko dugu? Komunitatearen beharrak eta potentziala ezagutzeko galderak zehaztu. ➤ Ikasleen interesetatik, beharretatik, nahietatik ➤ Dituzten ezagutzetatik, entzun dutenetik... ➤ Galdera posibleak: ○ Zer aldatuko zenuke auzoan? ○ Zer da gehien gustatzen zaizuna auzotik? Informazio bilketa zehaztu: zeini galdetuko diogu? ➤ Aukeratutako komunitateko (auzo/herri/ikastetxe) mapa marraztu eta bertan kokatu ezagutzen dituzten talde, elkarte, eragile, zerbitzu... ezberdinak. ➤ Baita ikasleen beraien eguneroko/ohiko joan-etorriak. ➤ Non elkartzen da jendea? Espazio publikoaren erabilera landu. ○ Zein dago hor? Noiz?

⁶ Bi fitxa daude: lehenengoak diagnostiko komunitarioaren diseinuari eta antolamenduari egiten dio erreferentzia, bigarrenak, diagnostiko komunitarioaren gauzatzeari.

⁷ Kasu honetan, 3h inguruko saio bat aurkezten da, 1.fasea antolatzeko proposamena da. Gainontzeko orduak diagnostikoa bera aurrera eramateko erabiliko lirateke.


⁸ Prozesuan bidelaguntzan izan ezik beste guztietan irakasleak, ikasleak eta auzoko eragileak (kasuan kasuko neurrian) osatuko dute partaidetza taldea, bidelaguntza ematen duten eragileak badaude euren laguntzarekin.

	Informazio bilketa zehaztu: nola bilduko dugu ➤ Informazio-iturriak aurkitu eta zerrendatu: datu-baseak, publikazioak... ○ Ikasleek nondik jasotzen dute informazioa? Zerbait jakin nahi badute non begiratzen dute? ➤ Aukera ezberdinen adibideak: mapa emozionalak, telefono bidezko elkarrizketak, kale-elkarrizketak eta trukea (bakoitzaren zaletasun eta gaitasunak erabili daitezke), kutzak galdetegiekin "auzokideen" inguruko informazioa biltzeko, aurrez aurreko elkarrizketak...
15'	Egindakoa elkarbanatu eta osatu. ➤ Bildutako ideiak taldean partekatu ➤ Landutako atal bakoitzetik zerri emango zaion lehentasuna erabaki.
10'	Bakoitzaren edo talde bakoitzaren ardura zehaztu. *Kontuz ardura banaketekin! Arreta jarri zerren arabera hartzen/banatzen diren ardurak. ➤ Ikasleek hautatuko dute zer rol hartu nahi duten? Irakasleek erabakiko dute? ○ Irakasle gisa kontziente izan eta ardura hartu egiten diren apustuez. ➤ Generoaren arabera banaketak ematen dira? Ikasle-taldearen zenbait botere-harreman iraunarazten dira?
40'	Lanerako denbora. Bakoitzak bere eginbeharra antolatu eta ekin. ➤ Beharrezko materiala zerrendatu eta bildu. ➤ Harremanetan norekin jarri? Nola? ➤ Zenbat denbora behar dela aurreikusten da? ➤ Elkarrizketak entseatzeko denbora hartu.
5'	Itxiera

Xedea: diagnostiko komunitarioa gauzatzea: komunitatearen beharrak ezagutzea

Diagnostiko komunitarioaren aukerak

- Aurretik hartu diren erabakiak gauzatu. Esaterako:
 - Elkarrizketa-trukea. Lanbide Heziketako familia profesionalari lotutako diagnostiko erramintak:
 - Ileapaindegiko ikasleak azazkalak marraztu bitartean elkarrizketa,
 - informatikako ikasleek galdetegiari lotutako QRak prestatu,
 - lorezaintzako ikasleak loreak banatu kalean galdetegia egin bitartean, eta abar.
 - Hautetsontziak balira bezala kutzak prestatu, erabakitako galdera daramatenak eta komunitateko zerbitzu ezberdinetan (saltokiak, tabernak, eskolak...) ekimena aurkeztu eta kaxa utzi, denbora tarte bat pasatakoan jasotzera joan.
 - Aurrez aurreko edo telefono bidezko elkarrizketak programatu eta gauzatu.
 - Korreo elektroniko bitartez komunitateko eragile ezberdinekin harremanetan jarri eta galdetegia bidali.
 - Galdera daraman horma-irudi bat egin eta kaletik jarri, jendearen erantzunak biltzeko.
- Erne! Gatazkekin eta eman daitezkeen egoera mingarrieekin. Baina baita ondo egiten diren gauzaekin ere, horietaz zorientzeko.



2. fasea. Ekimen Komunitarioaren plangintza

Erronka espezifikoaren identifikazioa izango da ekimen komunitarioa sortzen hasteko oinarria. Hau da, ekimenak hasierako arazo/gogo horri aurre egitea izango du helburu. Lehenik eta behin, garrantzitsua da bildutako informazioa berrikustea eta hortik ideia nagusiak zehaztea. Irakasle-ikasle bilduko dira eta auzoko eragileak ere gonbidatuta izan litezke elkarrizketa eta erabaki-hartzera.

Ezinbestekoa izango da bildu den informazioa sistematizatzea hortik ondorioak atera ahal izateko: zein ideia nabarmentzen da? Esanguratsua da? Behin oinarrian hartuko dugun informazio eskura izanda, hausnarketa eta erabaki hartzeari ekingo zaio; kasuan kasu egokien baloratzen diren teknika edo moduen bitartez.

Beti ere planifikatu den hori ezarri diren helburu zein baliabideen aldetik errealista dela ziurtatu behar da. Hori dela eta, etapa honek bi bide har litzake, batetik, proiektua martxan jartzea posible izatea eta hurrengo pausura pasatzea, edo baliteke zerbait okertzea eta proiektua berformulatzea.

Behin proiektua praktikoki eramangarria dela ziurtatzean, aurrera egingo da.

Aurreko fasean esan bezala, erabakiak hartzeko uneetan arreta berezia jarri behar da ikasgelan eman litezkeen dinamikak identifikatzeko eta behar izanez gero esku-hartzeko. .

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

- Baliabide eta baldintzen arabera, diagnostiko komunitariotik ateratako **ideia ezberdinak bateratu** daitezke.
 - Ikasturte honetan arrazoi ezberdinengatik (baliabide faltagatik, beste ideia bati lehentasuna emateagatik...) aurrera eraman ezin daitezkeen **ideiak erregistratzea komenigarria** da hurrengo ikasturtetarako.
 - Ekimena ahalik eta zehatzen antolatzeko, bururatutako **eginbehar denak zerrendatu**ko dira, baina horien artean **lehentasunak finkatzea** ere garrantzitsua da: ezinbesteko eginbeharrak, osagarriak, baimenak, etab.
 - Ardurak banatzeko orduan kontuan hartu orain arteko parte hartze joerak eta taldeko dinamikak, **zein gainjartzen den ikusi eta hortan eragin**.
 - **Aukera, premia eta lehentasunen arabera zehaztu** zeregin eta erantzukizunak.
 - **Ardurak txandakatu** ere egin daitezke.
 - Zaindu kide edo taldeak **ez gehiegi lan-kargatzea**.
 - Ezinbestekoa da diseinatzen denak **komunitatearen izaerari erreferentzia** egitea,
- bertan definitutako beharrei erantzutea eta ekimenaren garapenean eragileak inplikatzeko.
- **Izena jarri** egiten gabiltzan horri.
 - Kideen **kontaktuak bildu** eta zerrendatu, harremanetan jartzeko bidea zehaztu.
 - **Bilerak**, ahal den mailan, **modu jarraian** egin, koordinazioari denbora eskaini.
 - Bileretako **aktak hartzea gomendagarria** da, ebaluaziorako, memoriarako zein eginbeharrak antolatzeko.
 - Komunitateko **eragileek nola parte har dezaketen zehaztu**.
 - **Jasangarritasuna**ri deritzenez, baliteke udan zehar eskolak beregan har ezin ditzakeen eginbeharrak egotea (baratzetza zaintzea, demagun), plangintza eragileekin elkarlanean osatuz gero mantenua erosoago izango da.
 - **Ekimen komunitarioaren plangintza eta aurrera eramatea** (2. eta 3. faseak) **denboralki jarraian gauzatzea onesten** da.
 - Ikasleei zer bait gaineko agentzia ematen badiegu, **eurengan sinesten** dugulako izango da. **Esplizitatu** eta komunikatu ikasleei, baita okertzen bada ere, **suposatzen duena uler dezaten**.

2.fasea: Ekimen Komunitarioaren plangintza _ fitxa

Partaideak: Ikasleak eta irakasleak (eragileak ere ongi etorriak)

Iraupena: 1 ordu 30 min. - 2 orduko saio bat

Xedea: Erronka espezifikoki erantzuteko antolamendua osatu eta estrategia definitu.

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
2. fasea Ekimen komunitarioaren plangintza	1h 30 min - 2h						

Ideia nagusiak / Eginbeharrak / Jarduera

- Bildutako informazioa sistematizatu eta laburtu.
- Ikasgelako espazioa landu hausnarketa eta erabaki-hartze espazio bat sortzeko.
 - Banaka edo taldetan ikasleekin hausnarketa bultzatu hurrengo galdera-gidoi proposamena oinarri hartuta:
 - Zer egin nahi da? Helburu orokorra.
 - Atera diren gabezien zerrenda bat osatu.
 - Aukeraketa-gogoen beste zerrenda bat osatu.
 - Hausnartu eta horien artean lehentasunak finkatu. Zehaztu zein helbururi helduko zaion.
 - Zertarako? Zer lortu nahi dugu.
 - Zergatik? Proiektua gauzatzera animatuko gaituen hori definitu.
 - Norentzat? Zeineri zuzenduta.
 - Nola egingo da? Helburuak lortzeko jarduerak zehaztu.
 - Zer behar da? Baliabideak zehaztu.
 - Faktore lagungarriak eta trabak definitu.
 - Kronograma bat osatu eta eman beharreko urratsak zehaztu.
 - Egokia da? Aurrera eramateko posiblea, inpaktua izango duena, errealista...

- Erabaki hartzeko modu ezberdinak daudela kontuan izan: botaketa, faktore edo baldintzen arabera (errealista izatea), talde bakoitzak bere interesen arabera...
- Ekimena definitu ostean Check list bat osatu. Behar dugun/ditugun...
 - Materiala.
 - Denbora.
 - Baimenak.
 - Difusio estrategia (sare-soziala, kartelak, ahoz-aho, bideo bitartez...).
 - Koordinazioak edo elkarlanak
 - Ardura banaketa: partaidetzaren gakoak, generoa eta une seguruak kontuan hartuz zein zainduz.

3. fasea. Ekimen Komunitarioa aurrera eramatea

Aurreko puntuan diseinatu den estrategia horri helduko zaio eta ekimena gauzatzen hasiko da (ikasle-irakasle-eragile). Behin ekimena aurrera eramaten hasita ere, irekita egon behar da datozen egoerei erantzuteko, alegia, proiektuaren zein taldearen ikuspegia malgua eta moldagarria izan behar da bidean aurkituko diren egoera ezberdinekiko.

Ekimen hau elkarlanean eraman behar da aurrera, horregatik, kontaktua izan den auzoko eragileekin harremanetan jarri behar da, gutxienez asmoa zein den komunikatzeko, baina baita prozesuan parte-hartzeko eta euren iritzia adierazteko aukera emateko ere. Esaterako, lorategi bat sortzeko asmoa izanez gero balkoi eta leihoetan loreak dituzten auzokideekin kontaktatu daiteke, zenbait dende beharrezko materiala eskaini dezakete...

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

- **Aurreikuspenean denbora-tarte handia hartu**, inor korrika eta larrituta ibiltzea ekidin dezagun.
- Gauzak okertzea ohikoa da, ahalik eta lasaien hartu eta **prozesuaz gozatzen saiatu**.
- Gazteentzat garrantzi handia hartzen du **sorkuntza hautemangarria, duina eta denboran egonkorra** izatea.
- Egindako hori **errekonozitua** izan behar da: aurkezpen edo irekiera ekitaldi baten bidez, udaletxean bildu, komunikabideetan elkarriketa bat...
- **Ikasleak eta irakasleak ez ohiko roletan kokatzeko eta horiek probatzeko** baliagarria da.
- Gure testuinguru hurbilenetik **haragoko begirada** izan, eragileak presente izan.
- Nahiz eta behatua izan, **ikasleak elkarren artean orekatzen utzi**, autokudeatzeko aukera utzi.

3.fasea: Ekimen Komunitarioa aurrera eramatea _ fitxa

Partaideak: Ikasleak, irakasleak eta eragileak

Iraupena: 15 - 17 ordu (kasuan kasu egoki datorren modura antolatuta)

Xedea: ekimena gauzatu

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
3. fasea Ekimen komunitarioa aurrera eramatea	15 - 17 h						

Eginbeharrak				
➤ Aurreko fasean egituratutako plangintza osatu. Esaterako, horma-irudi bat marraztu auzolanean.				
Denborak zehaztu				K O R D I N A Z I O A
1. astea	Baimena eskatu udaletxean	Ekimenaren aurkezpena prestatu		
		Baiezkoa bada: mugak identifikatu. Non? Noiz?		
1. astea	"Auzoan" aztertu, non irudikatzen dugu marrazkia?	Badago "auzoan" gainontzeko horma-irudirik? Non?		
		Zein da komunitatearen eskari zehatza? Non? Zegatik?		
2. astea	Zer marraztuko dugu? Zirriborroa egin.	Espazioaren arabera, "auzoko" historiaren arabera...		
		Norbaitek lagundu al digu? Artistaren batek? Proposamenak batu eta parte hartzea bultzatu.		
2. astea	Kontsultatu komunitatearen iritzia	Asanblea, korreo elektronikoz...		
		Datak adostu		

		Ardurak zerrendatu	
3. astea	Baliabideak eskuratu	Pinturak, eskailera...	
Ekin!			
Ekimenaren aukerak			
➤ Kantxa bat edo horma-irudi bat marraztu auzolanean. ➤ Baratze bat prestatu eta martxan jarri. ➤ Zebra-bideak marraztu. ➤ Eskola zentroko espazio bat berrantolatu, diseinatu edo prestatu. ➤ Komunitatearentzat garrantzitsua den horren inguruko erakusketa bat antolatu. ➤ Komunitatea elkartzeko ekitaldi bat prestatu eta aurrera eraman, irteera bat, jarduerak, jolasak...			

4. fasea. Itxiera eta irekiera festa/ospakizuna

Ospakizunaren helburua arrakasta "txikiak" ospatzen datza, gozatzean eta gozatzen uztean. Ekitaldi honen parte izango dira prozesuan parte hartu duten eragile guztiak eta prozesua zein bere emaitza helaraziko da. Interesgarria izan liteke prozesuan zehar bildutako argazkiak, bideoak, audioak, testigantzak... helaraztea ospakizun egunean bertan edo aurretik.

Sare-sozialak izanez gero, horiek ere erabili litezke. Hala, egindakoak aitorpena jasoko du eta, agian, eragile berriak biltzeko aukerak areagotuko dira.

Ospakizunari dagokionez, bide batez, harremanetaz gozatzeko espazioa eraikiko da, sareak zabaltzekoa eta harreman horien baitan prozesuari izaera jasangarria ematekoa.

Ezinbestean aniztasunaren begirada txertatua izan behar da, biltzen diren erlijio, gorputz, hizkuntza, jatorri guztiak... errepresentatuak izan behar dira ospakizunean, prozesu osoan bezala.

Irakasle! Zenbait gako operatibo:

- **"Lekukoa" pasatzeko aukera**, beste taldeak inplikatzekoa (ikasturtea bukatzeaz bat beste taldeari transferentzia egiteko)
- Proiektua **ingurunera zabaldu**: ate irekien jardunaldia, auzotarrek ezagutzak/esperientziak partekatzea ikasgeletan eta tailerretan...
- **Prozesuari balioa eman.**
- **Partaideen topagunea.**
- **Gazteek** euren esperientziatik hitz egiteko eta euren **ahotsa entzuna** izateko espazioa da: irrati formatuan, aurkezpen modura, bideoan edo dagokion moduan.
- **Eskolen artean parteaktu esperientzia**, prozesuari koherentzia ematen dio.
- **Bakoitzaren talentua eta komunitatean bildu ditzakegun baliabideak aprobetxatu**: musikariak, marrazkilariak, influencer-ak...

4.fasea: Itxiera eta irekiera festa/ospakizuna _ fitxa

Partaideak: Ikasleak, irakasleak eta eragileak

Iraupena: 2 - 3 ordu

Xedea: Egindakoaren aitortpena eta sareak zabaltzea

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
4. fasea Itxiera eta irekiera ospakizuna	2 - 3 h						

Ideia nagusiak / Check list-a	Adibideak
Ospakizuna adostu ➤ Zer? ➤ Noiz? ➤ Non? ➤ Gonbidatuak? ➤ Zer eskeiniko dugu?	
Ardura banaketa *Erne sortzen eta iraunarazten diren dinamikekin.	➤ Pre: baimenak, erosketak, atontzea... ➤ Post: garbitzea, jasotzea, eskertzea...
Baimenak eta baliabideak eskuratu	➤ Udalean baimena eskatu ➤ Adin txikikoen baimenak eskatu ➤ Musikariarekin harremanetan jarri eta hitzordua itxi ➤ Janaria eta edaria erosi edo prestatu ➤ Platerak, edalontziak... eskuratu ➤ Nork gidatuko du ospakizuna + ikasle bakoitzaren eginbeharrak ➤ Kantu-zerrenda osatu: ○ kultura ezberdinak errepresentatu, indarkeria ez sustatu, ez sexista...
Ospakizuneko parte hartzaileek behar berezirik dute?	➤ Mugikortasuna, alergiak, menu-mota, erlijio ezberdinak errespetatu (Ramadan, esaterako), ohiturak, ordutegia denontzat egokia...
Gonbidapenak pasa	➤ Prestatu: mezua, diseinua ➤ Nori eta nola bidali erabaki ➤ Helarazi

Espazioa eta giroa prestatu	➤ Txukundu: espazioa, soinua, ongi etorria eman...
Espazioa jaso	➤ Espazioaren garbiketa ➤ Eskerrak ematea ➤ Difusioa gauzatzea, argazkiak editatzea... ○ Kontu handia izan ze iruditegi helarazten den, difusio elementuak zaindu.
Adibide gehiago	
Jolasak, aurkezpena, dantzaldia, erakusketa, tokiko irratietan aurkezpena, topagunea...	

5 EBALUAZIOA

e. EBALUAZIO MOTAK:

Proiektuaren ebaluazio espazioak sortuko dira prozesu osoan zehar. Honako helburuekin:

- **Prozesuaren ebaluazioa:** proiektua espero bezala aurrera eraman den ebaluatzen du, eginbehar eta denbora aldetik.
Esperotako saio kopurua bete da? Kronograma errespetatzea posible izan da? Parte hartzaileek prozesuaren ze puntutan kokatzen diren badakite? Zerbait botatzen dute faltan? Zerbait kenduko lukete? Aldatu? Zer deritzote edukietaz? Metodologiataz? Hezitzaile jardunean uneoro botere dinamikak kontuan hartuta ekin dugu? Ze posiziotatik harremandu gara gainontzeko parte hartzeileekin?
- **Emaitzen edo inpaktuaren ebaluazioa.** Ebaluazio hau proiektuaren helburuekin lotuta dago, prozesuak ze mailatan inpaktua izan duen jakin nahi da eta zeinengan. Horretarako ezinbestekoa da: 1) adierazleak hasieratik definitzea eta 2) neurketa gutxienez bi alditan egitea; prozesua hasi aurretik eta ondoren, adierazgarri horietan aldaketa ikus dadin. Alegia, O.fasearen aurretik ikasle eta irakasleen abiapuntuaren identifikazioa egingo da: irakasle eta ikasleek dituzten erronken, erresistentzien, sentimenduen, gaitasunen... inguruan galdetuz. Ebaluazioa egiteko modu ezberdinak daudenez, taldearen ezaugarriekin hoberen bat egiten duena hautatuko da.

f. EBALUAZIO TEKNIKAK ETA ITURRIAK⁹.

Aurretik aipatutako ebaluzio motak teknika hauetako batekin edo hauen arteko nahasketarekin gauzatu daitezke, orokorrean, teknikak nahastea interesgarria da, inguru ezberdinetara heltzea ahalbideratuko baitute eta ebaluazioari sendotasun gehiago emango baitiote. Hala ere, teknika bakoitzaren indargune eta ahulguneak kontuan hartuta hautatzea gomendatzen da:

⁹ Erreferentzietan lagungarri gerta daitezkeen adibide gehiago biltzen dira.

- **Indibiduala edo kolektiboa** izan liteke.
- **Kanpo edo barne ebaluazioa.** Ebaluazioa gauzatzen duen taldea prozesuan parte-hartu duenetariko bat izanez gero barne-ebaluazioa litzateke; hau da, norberak berea ebaluatzeari egiten dio erreferentzia. Bestalde, kanpoko norbait ebaluazioaz arduratuz gero, kanpo-ebaluazioa litzateke.
 - **Kuantitatiboa edo kualitatiboa,** edukiaren izaeraren arabera.
 - Erabilgarri gerta daitezkeen tekniken adibideak: elkarrizketa ireki edo itxiak, testigantzen bilketa, galdetegi edo test-ak, mahai-inguruak, bildutako erregistroak edo aktak, etab.



Ebaluazioa gauzatzeko hainbat modu ezberdin daude eta gainera, baliabideak elkar-trukatuz gero informazio gehiago biltzeko aukera dago, informazioa ikuspegi ezberdinetatik bilduz, kontrastatuz... Beraz, aukera horiek aprobetxatzea interesgarria da. Hala ere, edozein dela ebaluazioa egiteko modua, ebaluazioa baliozkoa izan dadin presente egon behar dira parte hartzaile guztiak edo guztien errepresentazio minimo bat.

6. JASANGARRITASUNA

Prozesu parte-hartzaile komunitarioa ez da ekintza soltea, geratzea nahi den zerbait da, egitura hartuko duena; esaterako, ikas-irakaskuntza ereduaren bidez, praktikekin edo erronkekin lotuz, barne-hausnarketa moduan, ikasgai ezberdinen lanketarako, eragileekin sortzen den sarearen erabileran... Nahiz eta proiektuaren jasangarritasuna bere 4 faseak bukatu ostean abian jarriko den, prozesuaren baitan landuko da nola egin daitekeen jasangarri; hau da, 4. fasea egituratzerakoan ikusiko da zer nolako energia eta elkarlanak sortu diren eta, hortaz, jarraipenak ze forma hartu lezakeen: hurrengo ikasturtera begira bakoitzak dituen igurikapenak, ibilbide bat definitu eta hori eman dadin zer baliabide, ardura eta konpromisu hartuko diren, harremanen zaintza, proiektuaren transferentzia (esaterako, 2.mailara pasa direnak 1.mailakoei) eta abar. Gainera, sortutako sinergiak mantentzeko baliagarria izango da. Jasangarritasuna proiektuaren baitan lantzearen asmoa denboran zehar mantentzeko modua definitzea da eta projektutik ateratako etekinei aurrerantzean ere espazioa ematea.

Demagun, beharrezko materiala auzokideek eskaini ahal dutela, espazio komunari udaran eragileek erabilera eman al diotela eta txukun mantendu, topaguneak antolatu daitezke esperientzia eta ezagutzak konpartitzeko...

Behin proiektua jasangarria denean eta hurrengo ikasturtean berriro heldu nahi zaionean 1. fasetik ateratako informazioa aprobetxatu liteke eta 2. fasetik hasi martxan. Hau da, aurreko ikasturtean egindako diagnostikoan oinarritzea posible da orduan definitutako beste erronka bati heltzeko; eta 0. faseko saioak eta edukiak azaltzen diren beharren arabera moldatu. Pare bat urtetan hala antolatzea egokia izan daitekeen arren, hiruzpalau urte pasatakoan prozesua berrastea gomendatzen da: diagnosi komunitario berri bat egitea eta 0. faseari osotasunean heltzea, izan ere, auzoan aldaketak ematen baitira eta baliteke irakaslegoaren artean ere ematea.

7. KRONOGRAMAREN PROPOSAMENA¹⁰

		Ikasturtearen lehenengo zatia			Ikasturtearen bigarren zatia		
	Ordu kopurua	ur.	az.	ab.	urt.	ots.	mar.
Prozesuan bidelaguntza	10 - 15 h						
0. fasea Formazioa, hausnarketa eta igurikapenen lanketa	3 - 4h						
1. fasea¹¹ Diagnosi komunitarioaren diseinua eta gauzatzea	7 - 8h						
2. fasea Ekimen komunitarioaren plangintza	1h 30 min - 2h						
3. fasea Ekimen komunitarioa aurrera eramatea	15 - 17 h						
4. fasea Itxiera eta irekiera ospakizuna	2 - 3 h						
Ebaluazioa	Prozesuan zehar						

¹⁰ Datak orientagarriak dira, kronograma beti egokituko da ikasturteko plangintzara.

¹¹ Prozesuan bidelaguntzan izan ezik beste guztietan irakaslegoak, ikaslegoak eta auzoko eragileek (kasuan kasuko neurrian) osatuko dute partaidetza taldea, bidelaguntza ematen duten eragileen laguntzarekin.

8.

BIBLIOGRAFIA

Jarraian azaltzen diren dokumentuak erabilgarriak gerta daitezke prozesu parte hartzaile komunitarioari heldu nahi dion ororentzat. Batik bat, prototipoan zehar aipatzen diren adibideak xeheki azaltzen dituztelako eta martxan jarri nahi duen horrek eman behar dituen pausuak zehatz-mehatz deskribatu. Bestalde, informazio gehigarria eskuratu nahi duen horrentzat ere baliagarriak gerta litezke.

○ **Prozesu parte-hartzaile komunitarioen gidak eta gakoak:**

Hurrengo lehen bi dokumentuak prozesu parte hartzaileak aurkeztu eta azaltzen dituzte, hirugarrenak aldiz, aurrera eramaterakoan kontuan hartzeko gako interesgarriak biltzen ditu. Informazio gehigarria eskuratzeko eta gaira hurbilpen sakonagoa egiteko egokiak dira.

- [\(Gobierno de Navarra. Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior., 2020\)](#)
- [\(Sumando, 2016\)](#)
- [\(Sorginlore, 2023a\)](#)

○ **Jarduera parte-hartzaileak.**

Prozesuko fase ezberdinetan eta helburu ezberdinekin aurrera eramateko jarduerak aipatzen dira. Gida hauek jarduera-aukera zabala eskaintzen dute, bakoitzak euren testuinguruaren ezaugarrien arabera bat edo beste hauta dezan. Horrez gain, eginbeharrak eta beharrezko materiala puntuz puntu aurkezten dute.

- [\(Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente Sostenible, 2009\)](#)
- [\(Proyecto JALDA, 2008\)](#)
- [\(CEAR, 2013\)](#)

○ **Ebaluazio parte-hartzailearen gidak:**

- [\(Tapella eta kol., 2021\)](#)
- [\(OIDP Ajuntament de Barcelona, 2006\)](#)

○ **Parte-hartze komunitario gehiago:**

Leku eta testuinguru ezberdinetan gazteekin aurrera eramandako prozesu parte-hartzaileak dira hurrengoak, gehigarri gisa irakurri nahi dituenarentzat.

- [\(Cano eta kol., 2019\)](#)
- [\(ONU-Habitat, 2021\)](#)
- [\(Salesianas. Colegio San Juan Bosco, 2020\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea, 2021\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea, 2022a\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea, 2022b\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea, 2022c\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea, 2023b\)](#)
- [\(Sorginlore Gizarte Elkartea & Adsis Fundazioa, 2023\)](#)

- Cano, A. B., Sabariego, M., eta Folgueiras Bertomeu, P. (2019). La participación comunitaria de los jóvenes en contextos urbanos vulnerables: Aportaciones desde un diagnóstico colaborativo en el área metropolitana de Barcelona (España). *OBETS. Revista de Ciencias Sociales*, 14(2), 313.
- CEAR. (2013). Técnicas participativas para el trabajo en grupos.
- Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente Sostenible. (2009). Metodologías Participativas Manual.
- Gobierno de Navarra. Departamento de Presidencia, Igualdad, Función Pública e Interior. (2020). Guía sobre participación en intervención comunitaria.
- ONU-Habitat. (2021). Aula Vivo Mi Calle. *Participación comunitaria en proyectos de espacio público y deseó urbano durante la pandemia de la COVID-19*. (pp. 171-180).
- Proyecto JALDA. (2008). Manual de Técnicas Participativas. *Guías y Manuales 10*.
- Salesianas. Colegio San Juan Bosco. (2020). Proyecto Participación Comunitaria Jóvenes: «Transforma tu entorno».
- OIDP Ajuntament de Barcelona. (2006). Guía Práctica. Evaluación de procesos participativos. Ajuntament de Barcelona.
- Sorginlore Gizarte Elkartea. (2021). *Diagnosi Komunitarioa—Bidebieta*, liderado por lxs jóvenes de FPB Adsis [Bideoa]. Youtube.
- Sorginlore Gizarte Elkartea (2022a). *Bidebieta Auzolanean* [Bideoa]. Youtube.
- Sorginlore Gizarte Elkartea (2022b). *Diagnosi Komunitarioa - ADSIS Gasteiz* [Bideoa]. Youtube.
- Sorginlore Gizarte Elkartea (2022c). *Diagnosi Komunitarioa—ADSI Leioa eta Getxo* [Bideoa]. Youtube.
- Sorginlore Gizarte Elkartea. (2023a). *Bazterketa arrisku egoeran dagoen gazteriaren lidergoaren bidezko parte-hartze komunitarioa. Gakoak eta Esperientziak*.
- Sorginlore Gizarte Elkartea (2023b). *Munduko Fest_ADSIS Gasteiz* [Bideoa]. Youtube.
- Sorginlore Gizarte Elkartea, eta Adsis Fundazioa. (2023). *Podcast Hegoadle Globaleko Gazteen Topaketa* [Podcast-a].
- Sumando. (2016). Guía de Proyectos Comunitarios de Jóvenes.
- Tapella, E., Rodriguez, P., Sanz, J. C., Chavez-Tafur, J., eta Espinosa, J. (2021). Siembra y cosecha. Manual de evaluación participativa.

Sustatzaileak:



Babesleak:

